



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, DONOSTIAKO JUDO KLUBEKO LEHENDAKARI [REDACTED] JAUNAK GIPUZKOAKO JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROLN FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2016ko IRAILAREN 22an HARTUTAKO ERABAKIEN AURKA 2016ko IRAILAREN 29an JARRITAKO ERREKURTSOAREN «ISILBIDEZKO EZESPENAREN» AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA

Espediente-zenbakia: 22/2016

AURREKARIAK

Lehena.- Donostiako Judo Klubaren lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 22an hartutako erabakien aurka jarritako errekurtsoare «isilbidezko ezespenearen» aurka jarritako errekurtsoa iritsi zen Kirol Justiziako Euskal Batzordera (aurrerantzean, batzordea) 2016ko urriaren 6an.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsoa izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun zion, eta hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eta alegazio-idazkia, 2016ko azaroaren 14koa, bidali zituen.

Laugarrena.- Errekurtsu hau Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-prozesua zuzenbidera egokitzeari buruz jarritako



errekurtso multzo baten zati denez (22/2016, 25/2016, 26/2016, 28/2016 eta 30/1016 zenbakiko espedienteak) eta hauteskunde-batzordearen alegazioen hasierako idazkiak, 2016ko azaroaren 14koak, errekurtso horietan proposatutako gai guztiei erantzuten ez zenez, eta, bereziki, 22/2016 zenbakiko espediente honi dagokion errekurtsoan sortutako alderdi jakin batzuei buruzko informaziorik ematen ez zuenez, batzordeak bi aldiz eskatu dio informazio osagarria hauteskunde-batzordeari, errekurtsoa ebazteko behar diren judizio-elementu guztiak edukitzeko.

Informazio osagarria 2016ko azaroaren 22an eskatu zen lehenengo aldiz, eta errekerimendu horri 2016ko azaroaren 23an erantzun ziztaion idazkiaren bitartez.

Eta informazio osagarria eskatu zen bigarren eta azken aldia 2016ko azaroaren 28a izan zen, eta hauteskunde-batzordeak 2016ko azaroaren 29an erantzun zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsoak aztertze eta ebazteko*».

Bigarrena.- Errekurtsogileak, hots, Donostiako Judo Klubaren lehendakariak errekurtsoa jarri zuen hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 22an hartutako erabakien aurka 2016ko irailaren 29an jarritako eta



errekurtsogileak errekurtsoaren «*isilbidezko ezespena*» deitzen dionaren aurka. Erabaki horiek hartu ziren egunean hauteskunde-batzordea eratu zen, hauteskunde-prozesuari hasiera eman zitzaion eta federazio-estamentuen behin-behineko erroldak eta hauteskunde-egutegia onartu ziren.

Zehaztu behar da hauteskunde-batzordeak igorritako hauteskunde-espeditentea osatzen duen dokumentazioa aztertu ondoren (espeditente horretako 50. eta 51. folioak), 2016ko irailaren 29ko errekurtsoa hauteskunde-batzordeak esanbidez ezetsi zuela dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo egunean –2016ko irailaren 30ean–, baina hauteskunde-espeditentean ez zela azaltzen erabaki hori ezezten zela Donostiako Judo Klubaren lehendakariari jakinarazi zitzaion eguna.

Ondoren aztertuko den errekurtso-idazkian errekurtsoa jartzeko hainbat arrazoi alegatzen dira aurkaratzearen xede den hauteskunde-egintzari dagokionez:

1.- Lehenik eta behin, 2016ko irailaren 29ko errekurtsoan alegatutako arrazoi guztiak errepikatu dira, baina onartu da hasierako errekurtso horretan agerian jarritako akats batzuk zuzendu dituela geroago–eta berandu–hauteskunde-batzordeak, hala nola dagokion hauteskunde-arautegiaren argitalpenari buruz alde aurretik informaziorik ez ematea; errekurtsogileak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistrotik lortu behar izan zuen informazio hori (federazioak ez baitzion araudi hori eman federazioaren egoitzan eskatu zuenean). Hauteskunde-arautegi hori 2016ko irailaren 22aren ondoren igo zen Internetera, baina hori ere berandu.

2.- Bigarrenik, gaitzetsi behar da 2016ko irailaren 22an onartutako hauteskunde-egutegian ezarritako epeak oso laburrak direla; errekurtsogilearen ustez, epe horiek «*iraingarriak*» dira.



Ilido horretan, kritikatzan da federazioak bederatzi hilabeteko epea jarri duela hauteskunde-prozesuari heltzeko, baina prozesu hori oso berandu hasi dela, eta horren ondorioz, hauteskunde-egutegiko epe batzuk presa onartezinarekin gainjartzen direla. Alegazio honetan hainbat adibide ematen dira hauteskunde-prozesuaren faseei buruz eta, gainera, salaketa orokor bat egiten da, hauteskunde-prozesuarekin zerikusirik ez duena, federazioaren eta haren lehendakariaren iruzurrezko jarrerari buruz.

Hirugarrena.- Batzorde honetan jarritako errekurtsioan 2016ko irailaren 29an hauteskunde-batzordean jarritako errekurtsioan agerian jarritako aurkaratzeko arrazoiak aipatzen direnez orokorrean, aztertuko dugun lehenengo gaia da federazioak posta elektronikoaren bidez jakinarazi zizkiola Donostiako Judo Klubari 2016ko irailaren 22an hartutako erabakiak, eta igorritako dokumentua ez zuela hauteskunde-batzordeko kide bakar batek ere sinatu; errekurtsogilearen ustez, dokumentua ez zen sinatu hauteskunde-batzordea presaka osatu zelako eta hauteskunde-prozesua ere presaka hasi zelako.

Gai hori erabat formala da, eta horrek ezin du ekarri, inola ere, hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 22an hartutako erabakiak deuseztatzea, are gehiago hauteskunde-espedienteari erantsitako dokumentazioa azertu ondoren –hauteskunde-batzordeak esaten duenez dokumentazio hori erabakiak hartu bezain laster zegoen eskuragarri federatuentzat federazioen egoitzan– egiaztatzen delako erabaki horiek aho batez hartu zirela eta bilkuraren akta hauteskunde-batzordea osatzen duten hiru kideek sinatu zutela.

Federazioak hauteskunde-prozesuaren dokumentu jakin bat kirol-klubera posta elektronikoaren bidez bidali izana, hauteskunde-batzordearen alegazio-idazkian alegatzen denaren arabera begirune gisa soilik, akats formal bat besterik ez da eta ezin du deuseztatzeko ondoriorik izan, salbu eta akats horien



ondorioz defentsa-gabezia materialen bat izan bada, baina kasu honetan ez da zirkunstantzia hori egiaztatu.

Laugarrena.- Errekurtsoa jartzeko bigarren arrazoia hauteskunde-arautegiaren argitalpenari buruzko informaziorik ez ematea da; errekurtsogileak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistrotik lortu behar izan zuen informazio hori (federazioak ez baitzion araudi hori eman federazioaren egoitzan eskatu zuenean). Hauteskunde-arautegi hori 2016ko irailaren 22aren ondoren igo zen Internetera, baina hori ere berandu.

Hauteskunde-prozesuaren hedapenari buruzko betebeharrak Gipuzkoako lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 28.-30. artikuluetan daude bilduta; aurreikuspen horiek, halaber, oso antzeko moduan daude jasota Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 34.-38. artikuluetan.

Lurralde-federazioaren hauteskunde-erregelamenduaren 28. artikuluan ezartzen da hauteskunde-batzordeak federazioko kide guztiek hauteskunde-prozesuaren berri izan dezaten eta dagozkien eskubideak erabil ditzaten bermatu beharko duela.

Zentzu horretan, Erregelamendu bereko 29. artikulua honako hau dio:

«Federazioak derrigorrez jarri behar ditu Gipuzkoako federazioaren eta Euskadikoaren iragarki taulan hauteskunde prozesuari buruzko dokumentu eta erabaki guztiak.

Federazioaren egoitzan hautesleen eskura jarriko dira hauteskunde-prozesuan diren agiri garrantzitsuenen kopiak, behar adinakoak,



esaterako egutegi, errolda eta hauteskunde-erregelamenduarenak (...)».

Bestalde, 30. artikuluan hauteskunde-prozesuaren hedapenari buruzko erregulazioa osatzen da, honako hau esaten baita:

«Federazioak www.kirolak.net webgunean argitaratuko ditu hauteskunde-erroldaren, -egutegiaren, -arautegiaren eta hauteskunde-batzordeen ebazpenen interes orokorreko testuak (...)».

Lurralde-federazioari emandako hasierako entzunaldi-izapidean igorritako dokumentazioaren arabera, hauteskunde-batzordea 2016ko irailaren 22an egindako ezohiko batzar nagusian hautatu zen eta egun horretan bertan eratu zen hauteskunde-organo hori. Organo horrek, beste erabaki batzuen artean, egun horretan bertan onartu zituen hauteskunde-egutegia eta estamentu bakoitzeko hautesleen behin-behineko errolda.

Lurralde-federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko azaroaren 14ko idazkiaren bidez igorritako alegazioen arabera, hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 22an hartutako erabakiak, hauteskunde-egutegia eta behin-behineko erroldak onartu ziren egun berean, hau da, 2016ko irailaren 22an argitaratu ziren federazioaren egoitzan eta www.kirolak.net webgunean.

Hala eta guztiz ere, bidalitako alegazioetan ez zen hauteskunde-arautegiaren argitalpenari buruzko aipamenik egin, eta hauteskunde-prozesuaren oinarrizko dokumentu horri dagokionez, honako azalpen orokor hau eman zen: *«hauteskunde-arautegia federatu guztien eskura zegoen federazioaren egoitzan, ezin baitzuen beste era batera izan»*.

Beraz, egiaztatu zen ez zela argi eta garbi adierazi hauteskunde-arautegia 2016ko irailaren 22an argitaratu zela eta federazioko kideen eskura



jarri zela, derrigorrezkoa den bezala, eta hauteskunde-espeditentean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, esan daiteke, aitzitik, arautegi hori hauteskunde-prozesua hasi ondoren hedatu zela eta federatuen esku jarri zela, eta ildo horretan espresuki egindako eskaeraren ondorioz, zeinetan prozedurazko ez-egitea adierazten den.

Kontuan hartuta alegazioak argiak ez direla, batzordeak, aurrekarietan adierazi denez, bi errekerimendu egin ditu hauteskunde-batzordeak argiago eta zehatzago zehazteko hauteskunde-arautegia hauteskunde-prozesua hastea erabaki zenetik –2016ko irailaren 22tik– aurrera ote zegoen federatuen esku eta egun horretan bertan argitaratu ote zen hauteskunde-arau hori www.kirolak.net webgunean.

Hauteskunde-batzordeak errekerimendu horiei 2016ko azaroaren 22ko eta 28ko idazkien bitartez erantzun die, baina proposatutako gai zehatzei emandako erantzunak orokorrak eta azalpen zehaztugabeak dira, ez baitu behar adina zehaztu galdetu zaiona.

Ildo horretan, hauteskunde-batzordeak bere idazkietan adierazi du hauteskunde-arautegia 2014. urtean onartu zuela Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zela; horregatik, hauteskunde-arautegi hori federatu guztiek ezagutzen zutela data horretatik aurrera eta federazioaren egoitzan nahiz Kirol Erakundeen Erregistroan kontsulta zezaketela.

Erantzun horrekin ez da aipatzen hauteskunde-arautegiak eta Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak betebeharrak jakin batzuk, arestian definitu direnak, ezartzen dituztela hauteskunde-arautegia hauteskunde-prozesuan hedatzeari eta argitaratzeari buruz, eta ezin dela egiaztatu



betebehar horiek betetzen direla federatu guztiek hauteskunde-arautegia 2014. urteaz geroztik ezagutzen zutela esanez orokorrean.

Hauteskunde-arautegia www.kirolak.net webgunean argitaratzeari dagokionez, hauteskunde-batzordeak soilik adierazi du webgune horretan jarri zela, baina ez du zehaztu, batzorde honek behin eta berriz galdetu arren, 2016ko irailaren 22an edo geroagoko beste egunen batean argitaratu zen.

Hauteskunde-batzordeak ez dio batzorde honi lagundu gertakariak argitzen eta egin zaizkion galderari erantzuten, eta hori gaitzesgarria izateaz gain, ondoriozta dezakegu (Prozedura Zibilaren Legearen 304.-307. artikuluetan prozesu judizialerako aurreikusten den bezala) errekurtsogileak adierazten dituen gertakariak egia direla, hauteskunde-batzordeak ez zituela hauteskunde-arautegia hedatzeko eta argitaratzeko betebeharrak bete eta dokumentu hori ez zegoela behar zen egunean, hots, 2016ko irailaren 22an argitaratuta www.kirolak.net webgunean.

Hauteskunde-arautegia hedatzeko eta argitaratzeko betebehar horiek ez betetzea larria da, baina ez-betetze horretatik etorriko diren ondorioak kasuz kasu aztertu beharko dira, eta hauteskunde-egintzak soilik deuseztatuko dira ez-betetze horrek benetako defentsa-gabezia materiala eragin badu eta ez-betetzea egin arren ezeztatu ez diren hauteskunde-egintzak gorde egingo dira.

Eta, kasu honetan, ez dugu ikusten 2016ko irailaren 22ko hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiak deuseztatzeko baldintzarik dagoenik, errekurtsogileak nahi duen bezala, ondoren azalduko ditugun arrazoiengatik.

Egia da errekurtsogileak adierazi duela saiatu zela federazioak hauteskunde-arautegiaren kopia bat eman ziezaion 2016ko irailaren 22ko erabakiak aurkaratu ahal izateko, baina alferrik izan zela, eta, azkenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundetik lortu behar izan zuela dokumentua,



eta halaxe dago, gainera, hauteskunde-espeditentean bertan egiaztatuta, oraingo errekurtsogileak eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko Erregistroak 2016ko irailaren 28an elkarri bidalitako mezu elektronikoen kopia jasota baitago espediente horretan (hauteskunde-espeditentearen 49. folioa).

Baina gertakari horiek agerian jartzen dute nahiz eta hauteskunde-arautegia federazioaren bidea erabiliz lortu ez arren, errekurtsogileak ezagutzen zuela hauteskunde-arautegia 2016ko irailaren 22ko hauteskunde-batzordearen erabakien aurkako errekurtsua jarri aurretik (hauteskunde-arautegia 2016ko irailaren 28an eskuratu zen eta errekurtsua 2016ko irailaren 29an jarri zen).

Beraz, ez dago dagozkion hauteskunde-egintzen deuseztapena justifika lezakeen defentsa-gabeziarik, are gehiago kontuan hartzen badugu hauteskunde-batzordeak errekurtsua izapidetzea onartu zuela eta hura ezesteko ebazpena eman zuela 2016ko irailaren 30ean, eta libre geratzen dela errekurtsua Kirol Justiziako Euskal Batzordean jartzeko bidea; errekurtsu hori jarri zen eta espediente honetan ebazten ari gara.

Azken batean, errekurtsogileak aurkaratzeko baliabideak erabili ahal izan zituen aplikatu behar den hauteskunde-araudia ezagutzen zuela, eta hauteskunde-batzordeak nahiz Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, orain, ebatzi ahal izan dituzte errekurtsogileak ondorioztatutako nahi guztiak; horregatik, errekurtsua jartzeko arrazoi hau indargabetu egin behar da.

Bosgarrena.- Errekurtsua jartzeko erabili den beste arrazoi bat, eta guk aztertuko dugun azkena, 2016ko irailaren 22an onartutako hauteskunde-egutegian ezarritako epeak oso laburrak izatea da.



Errekurtsogileak galdetzen du federazioak hauteskunde-prozesuari heltzeko bederatzi hilabete izanda zergatik hasi duen hain berandu prozesua; horren ondorioz, hauteskunde-egutegiaren epe batzuk gainjarri egiten dira presa onartezinarekin.

Errekurto-idazkian beste hainbat salaketa daude lurralde-federazioak eta haren lehendakariak egindako ustezko iruzurrezko jarduera batzuei buruz. Guk ez dugu jardun horiei buruzko balioespenik egingo, batzorde honi Kirol Federazioen hauteskunde-batzordeek hartutako erabakien aurka jartzen diren errekurtoak ezagutzea eta ebaztea baitagokio.

Ildo horretan, ez dugu inolako balioespenik egingo hauteskunde-batzordearen alegazio-idazkietan Gipuzkoako lurralde-federazioaren eta Donostiako Judo Klubaren arteko gatazkei buruz egiten diren kontsiderazioei buruz, horiek ere guri ezagutzea dagokigun gaietatik kanpo geratzen direlako.

Berriro ere guri dagokigun gaiari helduz, adierazi behar dugu egia dela kontuan hartzen baditugu hauteskunde-prozesua hasteko izandako atzerapena eta, hasiera batean, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 3.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko betebeharra, zeinak ezartzen baitu «*euskal kirol federazioek urte olinpikoaren ondoko urteko urtarrilaren 31 baino lehen izan beharko dituztela amaituta beren hauteskunde-prozesu guztiak*», hauteskunde-egutegian aurreikusitako epeak laburregiak dira, hauteskunde-batzordeari egindako errekerimenduetako terminologia bera erabiliz.

Baina errekurtsogileak ildo horretan egiten duen kexa alde batera utzita, errekurtsogileak ez du aurkeztu eta Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek ere ez du ikusten epeak laburrak izatetik eratorritako irregulartasunik dagoenik eta arrazoi hori dela medio hauteskunde-prozesua baliogabetzat har daitekeenik



eta prozesu horretako jardunak hauteskunde-batzordea eratu zen unera atzera eraman daitezkeenik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

Donostiako Judo Klubaren lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordearen erabakien aurka jarritako errekurtsua, 22/2016 zenbakiko espediente honen xede dena, ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen lehendakaria